

“PATRONALAK EZ DITU LANGILEAK NAHI, ESKLABUAK BAIZIK”
Langile-klasea enpresetan antolatzea da erantzuteko modu bakarra

Negoiazio kolektiboa, orain arte ezagutu izan dugun bezala, iraganeko kontua bihurtu da. Zalantzarik gabe, erreforma laboralarekin (RL) eta negoziazio kolektiboaren erreformarekin (RNC) mugarri bat ezarri da; erreforma horiek Diputatuen Kongresuan behin betiko ekainaren 28an onartu ziren. Prentsaurreko honetan RNC bera eta dagoeneko gure lan-merkatuan duen eragina aztertuko dugu.

Lehenago esan genuen bezala, parlamentuko tramiteak are gehiago okertu du Rajoyren gobernuak 2012ko otsailean onartu zuen dekretua. Izan ere, hori baitzen gobernuaren asmoa, baita ase ezinik dagoen patronal baten eskaria ere. Hau gauzatzeko Ppk, UPNren, Foro Asturiasen eta CiUren babesa izan du.

2011ko ekainean Zapaterok bultzatu zuen RNCarekin eman ziren NK zentralizatzeko lehen urratsak, erreformak zer eta non negozia daitekeen Madrilen erabakitzeak aukera ematen baitzuen. Harrezkero CCOOek, UGTk eta patronalak sektore-hitzarmen probintzial nagusiak hustu egin dituzte: 2011ko ekainetik aurrera estatu mailako hitzarmen ugari sinatu dute: Eraikuntza, Zementuaren Deribatuak, Segurtasun Pribatua, Merkataritza, Metala, Zaharren Egoitzak, Telemarketing, Kontserbagintza, etab. Neurri desberdinean, hitzarmen guztietarako negoziatu beharreko gai gehienak bereganatzen dituzte eta, nolanahi ere, erabaki egiten dute zer negozia daitekeen eta zein esparrutan, betiere estatu-esparruaren alde eta probintziakoaren kaltetan.

2012ko urtarrilaren 25ean CCOOek, UGTk, CEPYMEk eta CEOek Negoiazio Kolektiborako Estatu-Hitzarmen berri bat sinatu zuten (AENC); akordio honek biltzen ditu sinatzaileek Negoiazio Kolektiboaren edukiekiko hartzen dituzten konpromisoak. Orduan salatu genuen legez, akordio hark puntu oso erregresiboak eta eskasak jasotzen zituen; akordioa sinatu zuten sindikatuek berriro ere agerian utzi zuten uko egin diotela langile-klasea eta beronen bizi-baldintzak defenditzeari.

Kongresuak oraintsu onartu duen RNCak behin betiko kolpea eman du; beste zenbait eduki erregresiboz gainera, enpresako hitzarmenari lehentasuna ematen dio zenbait gaietan, soldata kasu; horrenbestez, sektore-hitzarmen probintzialak, orain arte negoziazio kolektiboaren oinarri zirenak, gomendio huts bihurtzen dira: ez dira derrigorrezkoak eta ez dute minimorik ezartzeko balio. Beraz, aurrerantzean enpresan edozer negozia daiteke, eta edozein unetan, gainera. Gobernuak, gainera, beste operari bat egiten dio patronalari, aspaldian eskatzen ari zen ultraaktibitatea mugatzea; urtebetekoa besterik ez da izango, hots, izatez desagertu egingo da; hitzarmenetan jasotako edukiak iraungitzetik urtebetara bertan behera geratuko dira. Hori aski ez eta Rajoyren Gobernuak patronalari botere handiagoa ematen dio, hitzarmenak ez aplikatzeko salbuespenak egiteko aukera erraztuz, eta lan-baldintzak alde bakarretik aldatzeko eskubidea aitortuz, lan-baldintzen funtsezko aldaketaren bidez (MSCT).

Otsailean Lege-dekretua indarrean sartu zenez gero, euskal patronalak, Espainiakoak bezala, ahal izan duen guztia aplikatu du, eta MSCT izan da erabiliena soldatak jaisteko eta lan-merkatua oihan bihurtzeko helburua lortze aldera; oihan horretan langileak salgai huts bilakatu dira, salgai merke askoa.

Hau guztia ikusirik, ELAk uste du ezin dela atzera begira jarraitu, ezta legeak onartzen ez dituen fikzioak asmatu ere; ez dago negoziazio-esparruak blindatzeko aukerarik (are gutxiago estatu mailako negoziazioari lehentasuna ematen diotenekin); ezin dugu patronalarekin negoziatzea eskatu, izan ere, ugazabek argi utzi baitute adierazpen publikoetan eta irekita dauden negoziazio-mahai guztietan erreformari ez diotela iskin egingo (areago, babestu egiten dute eta baliagarria dela diote); 2012ko urtarrileko AENC gaingaituko duen edukirik ez dute eskainiko.

Horregatik, ELAk hitz ematen du langileak hobeto antolatzeko ahalegina egingo duela, erreforma enpresetara irits dadin eragozteko, eta alternatibak bilatuko dituela defentsa kolektiboari eutsi ahal izateko; ezinbestekoa da langileengana iristea, RNCaren benetako mamia azaltzearren; honetarako ezinbestekoa izango da enpresetan presentzia handiagoa izatea. Sindikalizazioak baldintzatuko du enpresa eta sektore bakoitzeko errealitatea.

Azkenean, enpresek gure lan- eta bizi-baldintzak zapuzteko bidean topatuko duten oztopo bakarra antolatzeko dugun gaitasuna izango baita. Gaitasun hori hobetzeko konpromisoa hartu dugu, eta beti bezala, bidea eta borroka partekatzeko prest gaude, betiere diagnostiko, estrategia eta helburuak ondo finkatu ostean.

Bilbo, 2012ko uztailaren 2a